



<b>ERRENTERIAKO UDALAK KONKURRENTZIA BIDEZKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORRAK. 2024 URTEA.</b>	<b>BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES MEDIANTE CONCURRENCIA POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA. AÑO 2024.</b>
<b>LEHENENGOA.- Xedea. Dirulaguntza kontzeptua.</b>	<b>PRIMERA.- Objeto. Concepto de subvención.</b>
<u>Xedea:</u> Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorrak xedatzen du tokiko udalbatzek diru-laguntzen oinarri arautzaile egokiak ezartzeko beharra.	<u>Objeto:</u> La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece la necesidad de que las corporaciones locales establezcan las oportunas bases reguladoras para el reparto de subvenciones.
Araudi hori aplikatzeko, Errenteriako Udalak onartu zuen Errenteriako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko GAO, 150 zkdua.).	En aplicación de esta normativa el Ayuntamiento de Errenteria aprobó la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (B.O.G. nº 150, de 10 de agosto de 2015).
Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko azaroaren 7an onartu zuen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa. Planak jasotzen ditu 2024-2027 garairako aurreikusirik dauden udal dirulaguntza guztiak.	La Junta de Gobierno Local aprobó el 7 de noviembre de 2023 el Plan Estratégico de Subvenciones, el cual contempla todas las subvenciones municipales previstas para el período 2024-2027.
Oinarri orokor hauen xedea da arautzea Errenteriako Udalak 2024 urtean eta 2024-2025 ikasturtean zehar lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak.	El objeto de las presentes bases generales es la regulación de la concesión de subvenciones mediante convocatoria pública por el Ayuntamiento de Errenteria durante el año natural 2024 y el curso 2024-2025.
Oinarri hauek norgehiagokaren bidez (aurkeztutako eskabideak alderatuz, aurrez ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko) edo lehiarik gabeko edo elkarren segidako konkurrentzia ren bidez (eskatutako baldintzak betetzen dituzten	Estas bases se aplicarán a las subvenciones a adjudicar tanto mediante concurrencia competitiva (comparando las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados) como mediante



<p>eskabide guztiak aintzat hartuz, aurrekontu-partida agortu arte) esleituko diren diru-laguntzei aplikatuko zaizkie.</p>	<p>concurrencia no competitiva o sucesiva (estimando todas las solicitudes que cumplan los requisitos exigidos, hasta el agotamiento de la partida presupuestaria).</p>
<p><u>Dirulaguntzaren kontzeptua:</u></p> <p>Dirulaguntzatzat hartuko da Errenteriako Udalak edo bere organismo autonomoek egiten duten edozein diru-ezarpen, pertsona fisikoen edo juridikoen, publikoen edo pribatuen alde, eta, betiere honako baldintzak betetzen badira:</p>	<p><u>Concepto de subvención:</u></p> <p>Se entiende por subvención toda disposición dineraria que realice el Ayuntamiento de Errenteria o sus organismos autónomos, a favor de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, y que cumplan los siguientes requisitos:</p>
<p>- Ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.</p>	<p>- Que la entrega dineraria de la subvención se realice sin contraprestación directa de las personas beneficiarias.</p>
<p>- Ematea helburu zehatz bat betetzeari lotuta egotea, proiektu bat gauzatzeari, jarduera bat egiteari, jokamolde berezi bat hartzeari, egindakoak nahiz egin gabeak izan, edo hainbat egoera aldi berean gertatzeari, eta onuradunak ezarri diren betebeharrak material eta formal guztiak bete beharko ditu.</p>	<p>- Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo la persona beneficiaria cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.</p>
<p>- Diruz lagundutako proiektuak, ekintzak jokoerak edo egoerak xede izan dezala erabilera publikoko edo interes sozialeko jarduera sustatzea.</p>	<p>- Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad o utilidad pública o interés social.</p>
<p>Udalak ez du diruz lagunduko erlijio-jarduerarik. Ondorioz, aurkeztutako proiektu edo programetako batek izaera hori duen ekitaldiren bat badakar, jarri gabekotzat joko da, eta hura egitearen kostua ez da kontuan hartuko eskabidea baloratzeko orduan.</p>	<p>El Ayuntamiento no subvencionará actividades de carácter religioso. En consecuencia, si alguno de los proyectos o programas presentados incorpora algún evento con dicho carácter, se tendrá por no puesto y el coste de su celebración no será tenido en cuenta a la hora de realizar la valoración de la solicitud.</p>
<p>Udalak ez ditu diruz lagunduko honelako jarduerak edo antzekoak: zezen-ekitaldiak, uso-</p>	<p>El Ayuntamiento no subvencionará las siguientes actividades o similares: actos</p>



tiroketa edo bestelako espezieena, hiltzen duten ehiza eta arrantza lehiaketak, idi, ahari edo bestelakoen demak, etab.	taurinos, tiradas a pichón u otras especies, concursos de caza y de pesca con muerte, pruebas de bueyes, carneros u otros, etc,...
<b>BIGARRENA.- Dirulaguntza lerroak.</b>	<b>SEGUNDA.- Líneas de subvención.</b>
Oinarri hauek arautzen dituzte, gutxienez, ondorengo lerroetako deialdiak:	Las presentes bases regirán, al menos, en las convocatorias relativas a las siguientes líneas:
<b>1) Kultur aniztasuna, garapenerako lankidetzeta eta giza eskubideak:</b>	<b>1) Diversidad cultural, cooperación para el desarrollo y derechos humanos:</b>
1.1) Garapen lankidetzarako proiektuak gauzatzea	1.1) Ejecutar proyectos de cooperación para el desarrollo
1.2) Kulturarteko hezkuntzako edo/eta kultur aniztasunaren inguruko sentsibilizazioko ekintzak gauzatzeko.	1.2) Ejecutar acciones de educación intercultural y/o sensibilización en torno a la diversidad cultural
<b>2) Gazteria</b>	<b>2) Juventud</b>
2.1) Aurreikusitako jarduerak.	2.1) Actividades previstas.
2.2) Aurreikusi gabeko jarduerak.	2.2) Actividades no previstas.
2.3) Errenteriako gazteak emantzipatzea erraztu ahal izateko dirulaguntzak.	2.3) Subvenciones para facilitar la emancipación de jóvenes de Errenteria.
<b>3) Hezkuntza</b>	<b>3) Educación</b>
3.1) Ikastetxeak. Aurreikusitako jarduerak	3.1) Centros escolares. Actividades previstas
3.2) IGEak.	3.2) AMPA.
3.3.) Hezkuntzan eragiten duten entitateak.	3.3) Entidades del ámbito educativo.
3.4) Aurreikusi gabeko jarduerak.	3.4) Actividades no previstas.
<b>4) Udal Hizkuntza Politika</b>	<b>4) Política Lingüística Municipal</b>



4.1) Alfabetatze-euskalduntze ikastaro homologatuetan parte hartzea.	4.1) Asistencia a cursos homologados de alfabetización-euskaldunización.
4.2) Ezaugarri berezituak dituzten pertsonen alfabetatze-euskalduntze ikastaro homologatuetan parte hartzea.	4.2) Participación en cursos homologados de alfabetización-euskaldunización de personas con necesidades especiales.
4.3) Lan munduan euskararen erabilera, ezagutza eta ikusgarritasuna sustatzea.	4.3) Fomentar el uso, conocimiento y visibilidad del euskera en el mundo laboral.
4.4) Bai Euskarari ziurtagiria eskuratzea	4.4) Obtención del certificado Bai Euskarari
4.5) Madalen sariak	4.5) Madalen sariak
4.6) Eikasleen arteko bakarrizketa leihaketa	4.6) Concurso estudiantil de monólogos.
4.7) Liburua opari	4.7) Liburua opari
<b>5) Kirolak</b>	<b>5) Deportes</b>
5.1) Kirol Entitateak. Ohiko jarduerak.	5.1) Entidades deportivas. Actividades ordinarias.
5.2) Kirol Entitateak. ezohiko jarduerak.	5.2) Entidades deportivas. Actividades extraordinarias.
5.3) Eskola kirolaren kudeaketa eta arreta (aurre-Benjamin, Benjamin eta Alebin kategoriak).	5.3) Gestión y atención del deporte escolar (categorías pre-Benjamín, Benjamín y Alevín).
5.4) Eskola Kirola. Familientzat dirulaguntza	5.4) Deporte escolar. Subvenciones a familias.
<b>6) Kultura</b>	<b>6) Cultura</b>
6.1) Aurreikusitako jarduerak.	6.1) Actividades previstas.
6.2) Aurreikusi gabeko jarduerak.	6.2) Actividades no previstas.
6.3) Inauteriak.	6.3) Carnavales.
6.4) Madalenak.	6.4) Madalenas.



6.5) Auzoetako jaiak.	6.5) Fiestas populares de los barrios.
6.6) Legamia: arte bizen sorkuntza eta bitartekaritza egonaldi programetarako beka	6.6) Legamia: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas
6.7) Herritar plaza "ehunduz" proiektuen deialdia	6.7) Convocatoria proyectos herritar plaza "ehunduz"
<b>7) Gizarte zerbitzuak</b>	<b>7) Servicios sociales</b>
7.1) Gizartekintzan egiten diren jarduerak.	7.1) Actividades de acción social.
7.2) Udalerriko ikastetxeetan osasuna sustatzeko garatutako proiektuak.	7.2) Proyectos de promoción de la salud desarrollados en centros educativos del municipio.
7.3) Errenteriako pertsona erretiratuen zortzi elkarteen ekintza programa.	7.3) Programa de actividades a desarrollar en los ocho clubes de personas jubiladas de Errenteria.
<b>8) Berdintasuna</b>	<b>8) Igualdad</b>
8.1) Emakumeak: topaketak eta gizartean parte-hartzea.	8.1) Mujeres: encuentros y participación social.
<b>9) Artxiboa</b>	<b>9) Archivo</b>
9.1) Koldo Mitxelena ikerketa beka.	9.1) Beca de investigación Koldo Mitxelena.
<b>10) Ingurumena</b>	<b>10) Medio ambiente</b>
10.1) Iraunkortasun, ingurumen eta landa garapenaren inguruan ekintzak gauzatzeko, dirua irabaztea xede ez duten erakunde eta elkarteei	10.1) A entidades y asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen actividades en materia de sostenibilidad, medio ambiente y desarrollo rural.
10.2) Energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien inguruan ekintzak gauzatzeko dirulaguntzak ematea	10.2) Actuaciones de eficiencia energética, y en energías renovables en el municipio de Errenteria.
10.3) 50/50 proiektua Herri Ikastetxean	10.3) Proyecto 50/50 en colegios públicos



<b>11) Hirigintza</b>	<b>11) Urbanismo</b>
11.1) Bizigune programan egokitzapen lanak. dirulaguntzak	11.1) Programa Bizigune de subvenciones de acondicionamiento de viviendas vacías.
11.2) Eraikuntzen kontserbazioa eta birgaitzea / EIT eta birgaitze lanak egiteko dirulaguntzak.	11.2) Conservación y rehabilitación de la edificación / Subvenciones para la rehabilitación y realización de las ITEs.
<b>12) Hiri mantenua</b>	<b>12) Mantenimiento urbano.</b>
12.1) Ur garbietara isurtzen diren ur zikinak ekiditeko obrei daogkien dirulaguntzak.	12.1) Subvenciones para la realización de las obras que eviten los vertidos en aguas sucias a aguas limpias
Dirulaguntza lerro hauen zehaztapenak bakoitzari dagokion deialdiarekin batera onartuko diren oinarri espezifikoetan daude jasota.	Las especificidades de cada una de estas líneas de subvención vienen recogidas en las bases específicas contenidas en la convocatoria correspondiente a cada una de ellas.
<b>HIRUGARRENA.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko kopurua.</b>	<b>TERCERA.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.</b>
1. Dirulaguntzak gastu publikotzat joko dira eta horien eraginkortasuna baldintzatuko du deialdi bakoitzean aurreikusten den nahikoa aurrekontu-kreditu eta egokia egoteak..	1. Las subvenciones tendrán la consideración de gastos públicos y la efectividad de las mismas quedará condicionada a la existencia de crédito presupuestario adecuado y suficiente que se prevea en cada una de las convocatorias.
2. Dirulaguntzen emakidatik sortutako eduki ekonomikoko betebeharrei aurre egiteko, beharrezkoa bada aurrez aurrekontua aldatzea, dagokion espedientea tramitatuko da abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak ezarritako eran, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa dena, edo unean-unean indarrean dagoen araudiak ezarritako moduan.	2. Si para atender las obligaciones de contenido económico que se deriven de la concesión de las subvenciones, fuese preciso una previa modificación presupuestaria, el correspondiente expediente se tramitará en la forma establecida en la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa o en la normativa vigente en cada



	momento.
<b>LAUGARRENA.- Pertsona onuradunak</b>	<b>CUARTA.- Personas o entidades beneficiarias</b>
Dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak ordenantza arautzailean 12. artikuluan ezarriko baldintzak dira.	Los requisitos para ser beneficiario de subvención son los establecidos en el artículo 12 de la ordenanza municipal reguladora de la concesión de las subvenciones.
Hala ere oinarri espezifikoetan jasotzen da lerro bakoitzean dirulaguntzak eskatu ahal izateko bete beharreko baldintzak.	No obstante, en las bases específicas se establecen los requisitos para optar a cada línea de subvención.
Dirulaguntza horien emakida ezingo eskuratuko dute, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo erakundeek. Halaber, ezingo dituzte dirulaguntzak lortu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenek.	No podrán acceder a la concesión de estas subvenciones aquellas personas o entidades que, en virtud de la normativa vigente, tengan limitado o suprimido ese derecho. Asimismo, no podrán obtener subvenciones quienes hayan sido sancionados, por resolución firme, con la pérdida del derecho por el plazo que determine la resolución o se encuentren en cualquiera de los otros supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.
Ordenantza honetan araututako dirulaguntza eta laguntza deialdietara ezingo dira aurkeztu, dagokion zigorrak ezartzen duen epean zehar, zigor edo administrazio arloko zigorra jaso duten pertsonak, eta horren ondorioz, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu duten edo horretarako ezgaitzen duen lege-debeku baten eraginpean daudenak.	No podrán concurrir, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, a las convocatorias de las subvenciones y ayudas reguladas en esta ordenanza, las personas sancionadas penal o administrativamente, con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o estar incurso en prohibición legal.
Zehazki, ezin izango dira dirulaguntza onuradun izan:	En concreto, no podrán ser beneficiarias de subvención:
- Sexu-bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala dutenak, eta 4/2005 Legearen itzalpean debeku horrekin zehatutakoak.	- Las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la



	Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Helburuetan, kideak onartzeko sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean, jardueretan, antolaketan edo estatutuetan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa urratzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.	- Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.
- Kideak onartzeko prozesuan edo bere funtzionamenduan sexu-arrazoiengatik diskriminazioa egiten duten elkarteak.	- Las asociaciones que en su proceso de admisión o en su funcionamiento discriminen por razón de sexo.
Norbanakoek edo entitateek ere ezingo dute dirulaguntarik jaso, baldin eta: - Udalarekin edo Errenteria Musikal organismo autonomoarekin (Herri Arte Eskolarekin) dituzten zorreatatik behartze bidez ordainarazterko prozeduretan hasita badaude. - Edo Udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek ordaindu eta kitzatzen dituzten arte (salbuespen bakarra izango da zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioaren etetea erabaki bada).	Tampoco podrán concederse subvenciones a las personas o entidades que: - Se hallen incursas en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento o con el organismo autónomo Errenteria Musikal (Herri Arte Eskola). - O no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento, hasta que dichas deudas sean satisfechas y saldadas (salvo que se encuentren aplazadas o fraccionadas o se hubiese acordado la suspensión de su ejecución).
<b>BOSGARRENA.- Finantziarioaren muga, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna bestelako dirulaguntzekin</b>	<b>QUINTA.- Límite de la financiación, compatibilidad y concurrencia con otras subvenciones</b>
Udalak araudi hau betez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.	Las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento en virtud de la presente normativa serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquiera Administración o ente público o privado.
Aurrekoa gertatuz gero, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio organo emaileari	En el supuesto anterior, la beneficiaria deberá comunicar al órgano concedente la obtención de



<p>lortu dituela dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek, eta, nolana ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.</p>	<p>las citadas subvenciones, ayudas ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, tan pronto como se conozcan y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.</p>
<p>Udalak emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inola ere gaintitu, bakarka zein beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua.</p>	<p>El importe de las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el costo de la actividad subvencionada a desarrollar por la entidad beneficiaria.</p>
<p>Departamentu bati baino gehiagori lotutako proiektuek udal-arlo bateko diru-laguntzak bakarrik jaso ahal izango dituzte, horretarako, onuradunaren sozietatearen helburua eta/edo jarduera nagusia kontuan hartuta.</p> <p>Dena den, dagokion udal arlori bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.</p>	<p>Los proyectos vinculados a más de un departamento podrán beneficiarse únicamente de las subvenciones de un departamento municipal, teniendo en cuenta para ello, el objeto social y/o la actividad principal de la parte beneficiaria.</p> <p>No obstante, la solicitud se remitirá al departamento municipal correspondiente, de la que se dará cuenta al interesado</p>
<p><b>SEIGARRENA.- Eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioak.</b></p>	<p><b>SEXTA.- Solicitudes y documentos e informaciones que deben acompañarse.</b></p>
<p>Interesatutako pertsonak edo entitateek, Udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute dirulaguntza eskaera. Inprimaki hori, diru-laguntza lerro bakoitzari dagozkion oinarri zehatzei erantsia joango da. Eskaera orriarekin batera aipatu oinarri espezifikoei adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengoa aurkeztu beharko da:</p>	<p>Las personas o entidades interesadas deberán presentar solicitud de subvención en impreso normalizado facilitado por el Ayuntamiento (el cual se adjuntará a las bases específicas correspondientes a cada una de las líneas de subvención). La solicitud deberá ir acompañada de la documentación que se señala en dichas bases específicas, además de la siguiente:</p>
<p>— Eskatzailearen edo erakunde eskatzailearen ordezkariaren NANaren fotokopia.</p>	<p>— Fotocopia del DNI de la persona solicitante o representante de la entidad solicitante.</p>



— Erakunde eskatzailearen IFZren fotokopia, hala badagokio.	— Fotocopia, en su caso, del NIF de la entidad solicitante.
— Diruz laguntzea nahi den proiektua, jarduera edo programa, erakunde eskatzailearen organo eskudunak onartua.	— Proyecto, actividad o programa que se pretende sea subvencionado, aprobado por el órgano competente de la entidad solicitante.
— Programaren gastuen (kontzeptuak eta zenbatekoak), BEZ barne, eta sarreraren (jatorria eta zenbatekoa) aurrekontua.	— Presupuesto de gastos (conceptos e importes), IVA incluido, y de ingresos (procedencia e importe) del programa.
— Erantzukizunpeko deklarazioa, non beste sail, erakunde, organismo, eta abarrei egindako diru-laguntzen eskaerak jasoko diren, edo, hala badagokio, eman zaizkien dirulaguntzenak.	— Declaración responsable en la que se hagan constar las solicitudes de subvención formuladas ante otros departamentos, instituciones, organismos, etc., o en su caso, de las que estuvieran otorgadas.
— Euskarak eta berdintasunak zein tratamendu izango duen jardueraren hedapenean (balain eta eskaera inprimakian jasoa ez badago).	- Tratamiento del euskera y de la perspectiva de género previsto en la difusión de la actividad (si no está recogido en el impreso de solicitud).
- Eskaria egiten duenak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztatgiria (balain eta lehendik aurkeztu ez bada edo aldaketaren bat egon bada).	- Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la solicitante (si no ha sido presentado con anterioridad o si ha habido alguna modificación).
Dokumentazio hori pertsona edo erakunde eskatzaileak interesgarritzat jotzen duen beste edozeinekin osatu ahal izango du.	Esta documentación podrá ser complementada por cuanta otra que considere de interés la persona o entidad solicitante.
Interesatuak hala adierazten badute eta Errenteriako Udalak ziur balain badago eskaturiko dokumentuetako batzuk bere eskuan daudela, dokumentu horiek ez dituzte aurkeztuko.	Siempre que las personas interesadas así lo declaren y el Ayuntamiento de Errenteria tenga constancia de que algunos de los documentos solicitados se encuentran en poder del mismo, quedarán eximidas de presentarlos.
Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdietan parte hartzeko behar diren datuak egiaztatuko ditu, diru-laguntza lerro bakoitzari dagozkion oinarri zehatzetan zehaztuko	El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los datos necesarios para formar parte de la convocatoria, que se especificarán en las



<p>dira.</p>	<p>bases específicas correspondientes de cada una de las líneas de subvención.</p>
<p>Besteak beste, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalak egiaztatuko du dirulaguntzen eskatzaileak eta onuradunak egunean daudela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak.</p>	<p>Entre otros, y de acuerdo con lo establecido en el artículo 13.2.e) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Ayuntamiento verificará que los solicitantes y beneficiarios de las subvenciones se hallan al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.</p>
<p>Dena den, jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak eskabide egin duten pertsona fisikoei nahiz erakundeei eskatu ahal izango die beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria, horrela aurkezturiko jarduera baloratzearren.</p>	<p>En todo caso, además de la documentación relativa a la actividad, el Ayuntamiento podrá requerir a las personas físicas o entidades solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de la actividad presentada.</p>
<p><b>ZAZPIGARRENA.- Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.</b></p>	<p><b>SÉPTIMA.- Lugar y plazo de presentación de solicitudes.</b></p>
<p>Dirulaguntza-eskabideak aurkeztu ahalko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elektronikoki. Pertsona juridikoez ezinbestean bide hau erabili beharko dute.</li> <li>- ZU! Zure Udala – Arreta zerbitzuan (Herriko plaza,1).</li> <li>- Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan.</li> </ul>	<p>Las solicitudes de subvención podrán presentarse:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Electrónicamente. Esta modalidad de presentación es obligatoria para las personas jurídicas.</li> <li>- En ZU! Zure Udala – Servicio de atención (Herriko plaza, 1).</li> <li>- Por cualquiera de los medios previstos en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.</li> </ul>
<p>Dirulaguntzak eskatzeko epeak zehaztuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkian eta lerro bakoitzaren oinarri espezifikoetan. Horiek argitaratuko dira Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) delakoan</p>	<p>Los plazos de presentación de las solicitudes se especificarán en el anuncio que se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y las bases específicas correspondientes a cada una de las líneas de subvención, que serán publicadas en la Base de Datos Nacional de Subvenciones -</p>



<p>(<a href="https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index">https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index</a>), Udalaren web orrian eta Udalaren iragarki taulan.</p>	<p>BDNS- (<a href="https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index">https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index</a>), la página web del Ayuntamiento Errenteria y en el tablón de anuncios municipal.</p>
<p><b>ZORTZIGARRENA.- Prozeduraren instrukzioa eta ebazpen proposamena.</b></p>	<p><b>OCTAVA.- Instrucción del procedimiento y propuesta de resolución.</b></p>
<p>1. Lehia bidezko dirulaguntza hauen prozeduren instrukzioa diru-laguntza ematen duen udalaren departamentuko Teknikari bati dagokio.</p>	<p>1. La instrucción de los procedimientos de adjudicación de estas subvenciones corresponderá a un/a Técnico del departamento municipal que otorgue la subvención.</p>
<p>Instrukzio-jardunek barne hartuko dituzte:</p>	<p>Las actividades de instrucción comprenderán:</p>
<p>a) Ebazteko beharrezkotzat jotzen diren edo dirulaguntza erregulatzen duten arauak exijitzen dituzten txostenak eskatzea. Txosten horiek 10 laneguneko epean eman beharko dira, horiek emateak epe laburragoa edo luzeagoa behar izan ezean, eta azken kasu honetan ez da izango bi hilabetetik gorakoa.</p>	<p>a) Petición de cuantos informes estime necesarios para resolver o que sean exigidos por las normas que regulan la subvención, que deberán ser emitidos en el plazo de 10 días hábiles, salvo que requiera su emisión en un plazo menor o mayor, en este último caso no superior a dos meses.</p>
<p>b) Eskaren edo eskarien ebaluazioa, ezarritako eta argitaraturiko ebaluaziorako irizpideen, formen eta lehentasunen arabera eginda.</p>	<p>b) Evaluación de las solicitudes o peticiones, efectuada conforme con los criterios, formas y prioridades de valoración establecidos y publicados.</p>
<p>c) Hala badagokio, egiaztapen bat egingo da erakunde eskatzaile guztiekin, aurkeztutako proiektua gauzatzea posible iruditzen zaien zehazteko. Gehienez ere 10 egun balioduneko epean, adierazi beharko dute egingarritzat jotzen duten osorik edo zati batean betearaztea, aldatzen duten edo eskaeran atzera egitera behartuta dauden.</p>	<p>c) En su caso, se realizará un contraste con todas las entidades solicitantes, con el fin de que concreten si consideran factible la ejecución del proyecto presentado. En un plazo no superior a 10 días hábiles, deberán manifestar si consideran factible su ejecución total, parcial, lo modifican o se ven obligadas a desistir de su solicitud.</p>
<p>2. Instrukzio-organoak eskaerak ebaluatu ondoren, horretarako sortutako balorazio batzordeak egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena emango du.</p>	<p>2. Evaluadas las solicitudes por el órgano instructor, la comisión de valoración constituida al efecto emitirá informe en el que concrete el resultado de la evaluación efectuada.</p>



<p>Norgehiagoka bidez esleituko diren dirulaguntzetan, oinarri espezifikioetan ezarritako irizpideak aplikatu ondoren, erakunde eskatzaileei ez bazaie aurrekontu erabilgarri osoa esleitu, dirulaguntzak hainbanaketaren bidez birkalkulatu ahal izango dira, teknikari arduradunak horrela proposatzen badu, partida agortu arte, eskatutako dirulaguntza osoa lortu ez duten erakunde onuradunen artean.</p>	<p>En las subvenciones a adjudicar mediante concurrencia competitiva, si una vez aplicados los criterios establecidos en las bases específicas, no se hubiera asignado a las entidades solicitantes el total del presupuesto disponible, se podrá, a propuesta de la/el técnica/o responsable, recalcular las subvenciones, mediante prorrateo, hasta el agotamiento de la partida, entre las entidades beneficiarias que no hubieran obtenido el total de la subvención solicitada</p>
<p>Balorazio batzordea gutxienez honako hauek osatuta egongo da: dirulaguntza ematen duen departamentuko teknikari arduraduna edo dirulaguntza lerroaren teknikari arduraduna, departamentu horretako aholkulari juridikoa, Udal kontu-hartzailea edo hark eskuordetzen duen pertsona, Hizkuntz Politika saileko teknikari bat, eta Udaleko Berdintasunerako teknikaria.</p>	<p>La comisión de valoración estará integrada, al menos, por la o el responsable técnico del departamento que concede la subvención o de dicha línea de subvención, el o la asesora jurídica de dicho departamento, el o la interventora municipal o persona en la que delegue, un técnico o técnica del área de Política Lingüística, y la técnica de Igualdad del Ayuntamiento.</p>
<p>Lehiarik gabeko konkurrentzia bidez eman beharreko diru-laguntzen lerroetan, balorazio-batzordeak ez du esku hartuko oinarri espezifikioek hala ezartzen ez badute; izan ere, departamentuko teknikariaren txostena nahikotzat jotzen da.</p>	<p>En las líneas de subvención a conceder mediante concurrencia no competitiva, se prescindirá de la intervención de la comisión de valoración, salvo que así lo establezcan las bases específicas, toda vez que se considera suficiente el informe de la/el técnico del departamento.</p>
<p>3. Balorazio batzordearen expediente eta txostena aztertu ondoren, instrukzio organoak behar bezala arrazoitutako behin behineko ebazpen-proposamena egingo du, eta hamar laneguneko epea eskainiko die entitate edo pertsona interesatuei alegazioak aurkezteko.</p>	<p>3. A la vista del expediente y del informe de la comisión de valoración, el órgano instructor formulará propuesta de resolución provisional debidamente motivada, concediéndose un plazo de diez días hábiles a las entidades o personas interesadas para la presentación de alegaciones.</p>
<p>Entzunaldi tramite hau alde batera utzi ahalko da prozeduran agertzen ez kontuan hartzen ez bada pertsona interesdunek argudiatutako beste</p>	<p>Se podrá prescindir de este trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras</p>



egintzarik, alegaziorik edo frogarik. Kasu honetan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.	alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas. En ese caso, la propuesta de resolución tendrá carácter de definitiva.
4. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da.	4. Examinadas las alegaciones en su caso presentadas, se formulará propuesta de resolución definitiva.
Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuta, hala nola zer eskaera ezestea edo ez onartzea proposatzen duen eta zer arrazoitan oinarritu den.	Dicha propuesta deberá expresar la relación de solicitantes para las que se propone la concesión de la subvención y su cuantía, especificando su evaluación y los criterios de valoración seguidos para efectuarla, así como las solicitudes cuya inadmisión o desestimación se propone y los motivos en que se fundamenta.
5. Espedientean organo instruktorearen txostena egon beharko da, non bertan jasoko den bere eskutan dagoen informazioaren arabera, onuradunek betetzen dituztela dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak.	5. En el expediente deberá obrar informe del órgano instructor en el que conste que, de la información que obra en su poder, se desprende que las personas beneficiarias cumplen todos los requisitos necesarios para acceder a las subvenciones.
6.- Dirulaguntza banatzeko behin betiko erabakia Herritarrak arloko Informazio Batzordeak ebaluatuko du, eta horren egokitasunaz informatuko du.	6.- La propuesta definitiva de reparto de subvención será evaluada por la Comisión Informativa del ámbito de Ciudadanía, que informará sobre su oportunidad.
<b>BEDERATZIGARRENA.- Eskabideak baloratzeko irizpideak</b>	<b>NOVENA.- Criterios de valoración de las solicitudes.</b>
Eskabideak baloratzeko irizpideak dirulaguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatuko dira.	Los criterios de valoración de las solicitudes se establecerán en las bases específicas correspondientes a cada línea de subvención.
<b>HAMARGARRENA.- Ebazteko eta jakinarazteko epea.</b>	<b>DÉCIMA.- Resolución, plazo de resolución y notificación.</b>
1. Ebazpen-proposamena informatutakoan,	1. Una vez informada la propuesta de



<p>departamentuko zinegotzi delegatuak prozedura ebatziko du, arrazoitutako ebazpen bidez.</p>	<p>resolución, la o el concejal delegada/o del departamento resolverá el procedimiento mediante resolución motivada, debiendo quedar acreditado en el procedimiento los fundamentos de su resolución.</p>
<p>2. Ebazpenak espresuki bildu beharko du, hala badagokio, gainerako eskaerak aintzat ez hartzea eta zer arrazoitan oinarritu den.</p>	<p>2. La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso, del resto de las solicitudes y los motivos en que se fundamenta.</p>
<p>3. Ebazpenean jaso beharko da dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, justifikazio-forma eta ordenantzan, oinarri orokor hauetan, oinarri zehatzetan edo indarrean den araudian eskatutako gainerako baldintzak eta eskakizunak.</p>	<p>3. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención, la forma de pago, forma de justificación y demás condiciones y requisitos exigidos en la ordenanza, en estas bases generales, en las bases específicas o en la normativa vigente en el momento de su concesión.</p>
<p>4. Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio eta udalaren webgunean argitaratuko da (<a href="https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/">https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/</a>). Ebazpenaren argitaratze eguna izango da kontuan hartuko dena epeak zenbatzeko. Argitaratze egunean bertan, Udalak abisua igorriko die, posta elektronikoz, eskatzaile guztiei. Oinarri espezifikoez ezarri dezakete pertsona fisikoei jakinarazpenak paperez eta eskatzaileak horretarako adierazitako helbide fisikora igortzeko beharra.</p>	<p>4. La resolución pone fin a la vía administrativa y será publicada en la página web del Ayuntamiento (<a href="https://errenteria.eus/es/zu/subvenciones/">https://errenteria.eus/es/zu/subvenciones/</a>). El día de su publicación será el determinante a efectos del cómputo de plazos. El mismo día de la publicación, el Ayuntamiento enviará un aviso por correo electrónico a todas las personas o entidades solicitantes. Las bases específicas podrán determinar que las notificaciones a personas físicas se realicen en papel y a la dirección física que las solicitantes hayan designado a tal efecto.</p>
<p>5. Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpen zehatza jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo entitate eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte bere dirulaguntzarako eskaerak.</p>	<p>5. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de seis meses a partir de la finalización del plazo para presentación de solicitudes. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución expresa, las personas o entidades solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención.</p>



<p><b>HAMAİKAGARRENA.- Publizitatea</b></p>	<p><b>DECIMOPRIMERA.- Publicidad.</b></p>
<p>Emandako dirulaguntzen zerrenda, erakunde edo pertsona onuradunak eta beren zenbatekoak adierazita, argitaratuko da Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) delakoan (<a href="https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index">https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index</a>), Udalaren web orrian eta Udalaren web orrian (<a href="https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/">https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/</a>).</p>	<p>La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las entidades o personas beneficiarias y sus cuantías, serán publicadas en la Base de Datos Nacional de Subvenciones -BDNS- (<a href="https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index">https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index</a>), la página web del Ayuntamiento Errenteria y la página web municipal (<a href="https://errenteria.eus/es/zu/subvenciones/">https://errenteria.eus/es/zu/subvenciones/</a>).</p>
<p><b>HAMABIGARRENA.- Dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrak.</b></p>	<p><b>DECIMOSEGUNDA.- Obligaciones de las beneficiarias de subvenciones.</b></p>
<p>Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, hauek dira:</p>	<p>Son obligaciones de la entidad o persona beneficiaria, las siguientes:</p>
<p>a) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera gauzatzea edo diru-laguntzak emateko oinarri den portaera hartzea, i) atalean ezarritakoa alde batera utzi gabe.</p>	<p>a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones, sin perjuicio de lo establecido en el apartado i).</p>
<p>b) Udalaren edo, hala badagokio, entitate laguntzailearen aurrean eskakizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea, hala nola jarduera gauzatzea, eta dirulaguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea betetzea.</p>	<p>b) Justificar ante el Ayuntamiento o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.</p>
<p>c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortzea.</p>	<p>c) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.</p>
<p>d) Udalak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta laguntzea, indarrean den araudiaren baldintzetan, hala nola kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste</p>	<p>d) Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento, así como cualesquiera otras de comprobación y</p>



<p>egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekartzea.</p>	<p>control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.</p>
<p>e) Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik, eta horrela dagokionean, ordainketa bakoitza egin aurretik, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Errenteriako Udalarenak eta bere organismo autonomoenak egunean dituela egiaztatu.</p>	<p>e) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, y en su caso, antes de la realización de cada uno de los pagos, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y del Ayuntamiento de Errenteria y sus organismos autónomos.</p>
<p>Udalak zuzenean bilduko ditu aipatutako alderdiak (edo dirulaguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifikotan eska daitezkeen beste batzuk) egiaztatzeko behar dituen eta sektore publikoko erakundeen esku dauden datuak, eskatzaileak berariaz aurka egiten ez badu behintzat. Kasu horretan, egiaztatgiak aurkeztu beharko ditu.</p>	<p>El Ayuntamiento recabará directamente los datos en poder en las entidades del sector público que necesite para acreditar los extremos mencionados u otros que puedan exigirse en las bases específicas de cada línea de subvención, salvo que la solicitante se oponga expresamente. En ese caso, deberá aportar la documentación acreditativa.</p>
<p>Udalaren zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, Udalak berak emango du ziurtagiria, espedienteari erantsiko zaiona.</p>	<p>Para la acreditación de la obligación de estar al corriente de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Errenteria, la propia entidad local emitirá certificación, la cual se incorporará al expediente.</p>
<p>Eskatzaileek, dirulaguntza eskatzean, ebazpen proposamenaren unean edo ordainketa bat egin aurretik ez badauzkate egunean udal zerga biltegiari, Foru Ogasunari edota Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak, 10 egun emango zaizkie betekizun horretan egunean daudela egiaztatzeko.</p>	<p>A las solicitantes que en el momento de la solicitud de subvención, de dictarse la propuesta de resolución o de realizarse un pago no se encuentren al corriente del cumplimiento de sus obligaciones con la recaudación municipal, la Hacienda Foral o la Seguridad Social, se les concederá un plazo de 10 días para acreditar estar al corriente en dicho cumplimiento.</p>
<p>f) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean behar bezala ikuskatutako dokumentuak onuradunari aplikatzekoa den</p>	<p>f) Disponer de libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la</p>



<p>merkataritza eta sektore legeriak eskatutako baldintzetan, hala nola kasu bakoitzean merkataritzako eta sektoreko legeriak exiji ditzakeen kontabilitate-egoerako orriak eta erregistro zehatzak, eta dirulaguntzen oinarri espezifikoek exiji ditzaketen kontabilitate-egoerako orriak eta erregistro zehatzak konprobatze eta kontrol eskumenak behar bezala gauzaten direla bermatzeko.</p>	<p>persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases específicas de las subvenciones con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.</p>
<p>g) Jasotako fondoek aplikazioa justifikatzeko dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, konprobatze eta kontrol jardunen xede izan daitezkeelako, lau urteko epean zehar.</p>	<p>g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años.</p>
<p>h) Organo emaileari jakinaraztea, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotik, diruz lagundutako jarduerak finantzatzen duten beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana.</p>	<p>h) Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.</p>
<p>i) Jakinaraztea dirulaguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein egoera objektibo zein subjektiboren aldaketa.</p>	<p>i) Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.</p>
<p>Gertatu eta aurreikusi ezin den eta aldeentzat saihestezina den egoeraren bat (pandemia edo antzekoa) gertatzen bada, aurreikusitako jardueraren bat egitea eragozten badu, Udalarik proposatu ahal izango dio hura aldatzea edo beste batekin ordeztzea. Proposamena posta elektronikoz jakinaraziko zaio departamentuko teknikariari. Proposamenak profesional horren oniritzia jaso beharko du (posta elektronikoz ere bai). Bestela, gastuak Udalak ez du diruz lagunduko.</p>	<p>Si alguna situación sobrevenida y totalmente imprevisible e inevitable para las partes (pandemia o similares) impide la realización de alguna de las actividades previstas, podrá proponer al Ayuntamiento su modificación o sustitución por otra. La propuesta se comunicará mediante correo electrónico dirigido a la técnica o técnico del departamento. La propuesta deberá obtener el visto bueno (también mediante correo electrónico) de dicha/o profesional. En caso contrario, los gastos que</p>



	genere su realización no serán subvencionados por el Ayuntamiento.
Aurreko paragrafoan ezarritako aukerak ez du inola ere handituko dirulaguntzaren onuradunari ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa.	La posibilidad establecida en el párrafo anterior en ningún caso supondrá la ampliación de la cuantía máxima a abonar a la beneficiaria de la subvención.
j) Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzan aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzultzea.	j) Reintegrar los fondos percibidos en los supuestos previstos en la ordenanza municipal reguladora de las subvenciones.
k) Diruz lagundutako jardueraren hedapen-ekintzetan, "Errenteriako Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuko da. Baita Udalaren armarría, hedabidea idatzietan, euskarri elektronikoen edo ikus-entzunezkoetan. Oinarri zehatzek beste esaldi edo logotipo bat txertatzeko beharra jaso dezakete. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Errenteriako Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean.	k) En las acciones de difusión de la actividad subvencionada deberá insertarse la frase "Con la colaboración del Ayuntamiento de Errenteria" añadiendo, en caso de difusión escrita o en medios electrónicos o audiovisuales, el escudo de la Villa, salvo que las bases específicas contemplen la publicación de otro logotipo o frase. Este requisito se cumplirá tanto si el Ayuntamiento de Errenteria fuera único colaborador, como en el caso de que compartiera este patrocinio con diferentes colaboradores.
l) Eduki politiko edo errebindikazioko elementurik ez sartzea, edozein joeratakoa delarik, diruz lagundutako jarduerarekin zerikusi duten argitaratutako idazki, iragarki, ohar, propaganda (ahozkoa nahiz idatzizkoa izan) eta bestelako komunikazioetan. Era berean, pankartarik edo bestelako elementurik ez da erakutsiko diruz lagundutako jardueraren garapenean zehar.	l) No incluir elementos de contenido político o reivindicativo, de cualquier signo, en los escritos, anuncios, avisos, propaganda (bien sea oral o escrita) y demás comunicaciones que se publiquen en relación con la actividad subvencionada, ni proceder a la exhibición de pancartas u otros elementos durante el desarrollo de la actividad subvencionada.
m) Jardueraren garapenean zehar pertsonaren oinarrizko eskubideekiko behar den errespetua erakustea eta indarrean diren legeak errespetatzea.	m) En el ejercicio de la actividad se observará el debido respeto a los derechos fundamentales de la persona y se respetará la legalidad vigente.
n) Hizkuntza ariloko eginkizunak betetzea, hain	n) Cumplir con las obligaciones en materia



<p>zuzen ere, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzkoa denak ezarritakoa, baita garapen xedapenetan ezarritakoa ere.</p>	<p>lingüística, establecidas por la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, de Normalización del uso del Euskera y disposiciones de desarrollo.</p>
<p>ñ) Aplikatu beharreko indarrean dagoen arautegia errespetatzea.</p>	<p>ñ) Respetar cuanta normativa vigente resulte de aplicación.</p>
<p><b>HAMAHIRUGARRENA.- Dirulaguntzen itzulketa eta zehapen araubidea</b></p>	<p><b>DECIMOTERCERA.- Reintegro y régimen sancionador</b></p>
<p><u>Itzulketa.</u></p>	<p><u>Reintegro.</u></p>
<p>1. Jasotako diru-kopuruak itzuli eta berandutze-interesak exijituko dira dirulaguntza ordaindu denetik, itzulketaren jatorria adosten den datara arte, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak (37. artikuluan) eta haren garapenerako erregelamenduak aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, baita oinarri orokor hauetan edota deialdian jasotakoa ez betetze kasuetan ere.</p>	<p>1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención, hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 37 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo, así como por incumplimiento de lo dispuesto en estas bases generales o en la convocatoria.</p>
<p>2. Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta hortaz, premiamendu-bidez exijitu ahal izango dira itzulketa egiten ez bada erabakitako epeetan.</p>	<p>2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público, por lo que podrán ser exigidas por la vía de apremio si el reintegro no se efectúa en los plazos que se determinen.</p>
<p>3. Kudeaketa, ikuskapen edo kontrol funtzioetan jasotako dirulaguntza modu desegokian lortu, gozatu edo bideratu dela zantzurik izanez gero, espedientea jasota geratuko dira zantzu horiek beharrezko kautelazko neurriak adostu ahalko dira.</p>	<p>3. Cuando en el ejercicio de las funciones de gestión, inspección o control se deduzcan indicios de incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención percibida, se dejará constancia en el expediente de tales indicios y se podrán acordar las medidas cautelares precisas.</p>



Dirulaguntza emateko erabakiak kontuan hartuko du oinarri arautzaile honen aurreko atalean adierazirikoa.	En la resolución de concesión de la subvención se deberá incluir lo señalado en el apartado anterior de esta base reguladora.
<u>Zehapen araubidea</u>	<u>Régimen sancionador</u>
Dirulaguntzen alorrean arau-hauste administratiboak dira diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 56, 57 eta 58 artikuluetan tipifikatutako ekintzak, eta ez-egiteak, eta zabarkeria hutsa izanda ere zehagarriak izango dira.	Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones tipificadas en los artículos 56, 57 y 58 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, y serán sancionables incluso a título de simple negligencia.
Dirulaguntzen baldintzak ez betetzeak kasu bakoitzean dagozkion erantzukizunak sortuko ditu, esparru hauetan.	El incumplimiento de las condiciones de la subvención originará las responsabilidades que en cada caso correspondan.
<b>HAMALAU GARRENA.- Hizkuntza eskubideak bermatzeko betebeharrak</b>	<b>DECIMOCUARTA.- Obligaciones para garantizar los derechos lingüísticos</b>
Dirulaguntzaren entitate onuradunak dirulaguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.	La entidad beneficiaria de la subvención en las comunicaciones llevadas a cabo en las actuaciones objeto de la subvención, respetará las siguientes directrices:
Idatziari dagokionez:	En lo que respecta a las comunicaciones escritas:
a) Hizkuntza paisaia:	a) Paisaje lingüístico:
Errotuluak, oharak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.	Los rótulos, avisos, anuncios, tarjetas, publicidad y resto de comunicaciones se realizarán mediante pictogramas.
Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak elebietan egingo dira euskarari lehenasuna emanaz (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin alde aurretik adostuta.	Cuando no pueda utilizarse un pictograma, los mensajes se redactarán en los dos idiomas, priorizando la versión en euskera (posición del texto, mayor tamaño de letra, negrilla). Previamente se consensuarán con el Ayuntamiento.



<p>Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.</p>	<p>Los programas, anuncios, y avisos de las actividades objeto de la subvención que se publiquen y pongan a disposición de la ciudadanía se redactarán como mínimo en los dos idiomas oficiales, dando prioridad al euskera.</p>
<p>b) Harremanak Administrazioarekin:</p>	<p>b) Relación con la Administración:</p>
<p>Dirulaguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.</p>	<p>En el momento de la tramitación de la solicitud de subvención se les solicitará que hagan el esfuerzo de mantener en euskera la relación oral y escrita con el Ayuntamiento, sin olvidar que la Ley 2/2016, de 7 de abril y la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, reconocen a la ciudadanía el derecho de comunicarse con la administración en los dos idiomas oficiales.</p>
<p><u>Ahozkoari dagokionez:</u></p>	<p><u>En lo que respecta a las comunicaciones orales:</u></p>
<p>Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki hurrekin egiten diretan aritzen direnek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.</p>	<p>Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de las y los ciudadanos que quieran comunicarse en euskera, se priorizará que quienes participen en las actividades que se realicen con la ciudadanía en general, y en particular en las que se realicen con las niñas y niños, tengan capacidad lingüística necesaria para comunicarse en los dos idiomas oficiales.</p>
<p>Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.</p>	<p>La propaganda, avisos, publicidad etc. que se realicen por altavoces se harán en los dos idiomas oficiales, dando en ese caso prioridad al euskera. Cuando las características de la actividad o de las personas que participen en ella así lo requieran se priorizará el uso del euskera.</p>
<p>Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.</p>	<p>Los mensajes emitidos mediante megafonía durante los actos concretos, así como la música y canciones, deberán cumplir esa condición.</p>



<p>Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.</p>	<p>Cuando se organice alguna conferencia o similar y la persona ponente no sepa euskera, se solicitará la presencia de una persona ayudante vasco parlante, al objeto de que se respeten los derechos de las personas que deseen utilizar el euskera.</p>
<p><b>HAMABOSGARRENA.- Emakume eta gizonen berdintasunaren arloko betebeharrak.</b></p>	<p><b>DECIMOQUINTA.- Obligaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres.</b></p>
<p>- 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoan, eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritako printzipioak eta betekizunak betetzea.</p>	<p>- Cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, del Parlamento Vasco, para la Igualdad de Mujeres y Hombres; y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.</p>
<p>- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, eta bi hizkuntza ofizialetan, ahoz zein idatziz, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiar dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.</p>	<p>- Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.</p>
<p>Ahal den neurrian, diru-laguntzaren helburuak bete direla frogatzen duen memoriarekin batera, entitate onuradunak egindako zerbitzuaren azken onuradunen edo erabiltzaileen sexuaren araberako banakapena aurkeztu beharko du.</p>	<p>En la medida de lo posible, junto con la memoria justificativa del cumplimiento de los fines de la subvención, la entidad beneficiaria deberá aportar desglosada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado.</p>
<p><b>HAMASEIGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa eta ordainketa aurreratuak.</b></p>	<p><b>DECIMOSEXTA.- Abono de la subvención y pagos anticipados.</b></p>



<p>1. Dirulaguntzaren ordainketa diru-laguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela aurrez egiaztatuta egingo da.</p>	<p>1. El abono de la subvención se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió.</p>
<p>2. Aurrekoa horrela izanda ere, diruz lagundutako ekintzarengatik egiaztatzen bada, konturako ordainketak egin ahal izango dira. Konturako ordainketa horiek ordainketa zatikatuen bidez egin ahal izango dira, diruz lagundutako ekintzak gauzatzen diren erritmoaren arabera, eta aurkeztutako egiaztagiraren zenbateko baliokide bidez ordainduko dira. Oinarri espezifikoek zehaztuko dute noiz eskatu daitezkeen ordainketa horiek, data zehazetan edo ekintzen gauzatzearen portzentaiaren arabera.</p>	<p>2. No obstante lo anterior, cuando se justifique por razón de la acción subvencionada, podrán realizarse abonos a cuenta. Dichos abonos a cuenta podrán consistir en pagos fraccionados, que responderán al ritmo de ejecución de las acciones subvencionadas, abonándose por cuantía equivalente a la justificación presentada. Las bases específicas concretarán las fechas o porcentajes de ejecución en que se podrán solicitar los abonos.</p>
<p>3. Ordainketa aurreratua egin ahal izango dira eta berekin ekarriko dute fondoak entregatzea justifikazioaren aurretik, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa. Oinarri zehazetan xedatuko da portzentaia. Aldez aurreko ordainketak ezingo du emango den dirulaguntzaren %80 gainditu.</p>	<p>3. Se podrán realizar pagos anticipados que supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. El porcentaje se determinará en las bases específicas. La entrega anticipada no podrá superar el 80% de la subvención que se vaya a otorgar.</p>
<p>Aurrekoaren kalterik gabe, salbuespenez eta oinarri espezifikoek debekatzen ez badute, dirulaguntzaren pertsona edo entitate onuradunak egoki justifikatutako eskaera egingo balu, organo eskudunak beste entrega baten aurreratzea erabaki dezake. Inoiz ezin izango da dirulaguntzaren kopuru osoa aurreratu.</p>	<p>Sin perjuicio de lo anterior, excepcionalmente y siempre que las bases específicas no establezcan lo contrario, tras la solicitud debidamente justificada de la entidad o persona beneficiaria de la subvención, el órgano competente podrá acordar el anticipo de otra entrega, sin que en ningún caso pueda anticiparse el importe total de la subvención.</p>
<p>4. Dirulaguntzaren ordainketa ezingo da egin pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez dituen artean edo itzulera bidez kotasuneko ebazpenez zordun denean</p>	<p>4. No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la entidad o persona beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad social o sea deudora por resolución de procedencia de reintegro.</p>



<p><b>HAMAZAZPIGARRENA.- Dirulaguntzaren justifikazioa.</b></p>	<p><b>DECIMOSÉPTIMA- Justificación de la subvención.</b></p>
<p>1. Diruz lagundu den jarduera amaitutakoan, dirulaguntza lerro bakoitzean adierazitako epean, diruz lagundutako jardueri edo programei buruzko dokumentazio zuritzailea aurkeztu beharko da.</p>	<p>1. Finalizada la actividad para la cual se otorgó la subvención deberán ser presentada, dentro del plazo establecido en cada una de las líneas de subvención, la documentación justificativa de la realización del programa o actividad subvencionada.</p>
<p>2. Dirulaguntzen pertsona edo entitate onuradunak behartuta daude justifikatzera jasotako fondoak bideratu direla dirulaguntza oinarritu zuen xederako.</p>	<p>2. Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones estarán obligadas a justificar el destino de los fondos percibidos a la finalidad que sirvió de fundamento a la subvención.</p>
<p>Justifikazioa emateko epea dirulaguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifikoean zehaztuko da.</p>	<p>El plazo de rendición de la misma vendrá determinado en las bases específicas de cada una de las líneas de subvención.</p>
<p>Justifikazioa euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko da, ondorengo baldintzak betez:</p>	<p>La justificación deberá redactarse en euskera o en los dos idiomas oficiales, conforme a los siguientes requisitos:</p>
<p>a) Onuradunak gastu (BEZ barne) eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduerak egiteko dirulaguntzak badira) edo jarduera osoari edo programa zehatz bati dagozkionak (dirulaguntza bat jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen bada). Erakundeen kasuan, idatzi hori sinatuko du ahalmendua izan den pertsonak, izen-abizenak eta DNI zenbakia zehaztuz.</p>	<p>a) La beneficiaria deberá presentar las cuentas de la totalidad de sus gastos (IVA incluido) e ingresos (en el caso de subvenciones para la realización de la actividad anual) o los correspondientes a la totalidad de una actividad o programa específico (en el caso de que se conceda una subvención para la realización de una determinada actividad o programa). Dicho documento vendrá firmado, en el caso de las entidades, por la persona apoderada para ello, identificada con nombre, apellidos y DNI.</p>
<p>b) Erantsiko da Diruzainak emandako egiaztagiri bat -bere izen-abizenak eta Nortasun Agiri zenbakia jasoz- (edo, pertsona fisikoa bada, erantzukizunpeko deklarazioa) aurkeztu beharko du. Bertan diruz lagundutako proiektua, jarduera</p>	<p>b) Se adjuntará una certificación emitida por la Tesorera o Tesorero de la entidad (o declaración responsable, en el supuesto de persona física), haciendo constar una relación de todos los ingresos obtenidos para la</p>



<p>edo programa finantzatzeko lortutako diru-sarrera guztien zerrenda jasoko da, bai entitate publikoetatik eta pribatuetatik datozenak, bai publikoak, oro har emandakoak edo bazkideek egindako ekarpenak.</p>	<p>financiación del proyecto, actividad o programa subvencionado, tanto sean provenientes de entidades públicas como privadas, así como del público en general o de las aportaciones de sus socios/os.</p>
<p>c) Onuradunak kontu horietan erantsi beharko ditu faktura eta/edo ordainketa egiaztagiri guztiak (trafiko juridikoan baliozkoak) egin diren gastuak egiaztzeko (originalak). Klausula honen 3. atalean zehazten dira dokumentu horien betebeharrak.</p>	<p>c) La beneficiaria deberá adjuntar a las citadas cuentas, todas las facturas y/o documentos obtenidos de justificantes de pago (válidos en el tráfico jurídico) acreditativas de los gastos realizados (originales). En el punto 3 de esta cláusula se concretan los requisitos de dicha documentación.</p>
<p>d) Nolanahi ere, jarduera egin eta egiaztzeko epea amaituta, egindako gastuen zati bat bakarrik ordaindu izan balitz, kobratzeko eskubidea galtzeko ondorioetarako, proportzionaltasunaren printzipioa aplikatuko litzateke, hamabigarren klausularen 1. puntuak xedatzen duen bezala.</p>	<p>d) En todo caso si, realizada la actividad y finalizado el plazo para justificar, se hubiera pagado sólo una parte de los gastos en que se hubiera incurrido, a efectos de pérdida del derecho al cobro, se aplicará el principio de proporcionalidad, tal y como establece la cláusula decimosegunda en su apartado 1.</p>
<p>3.- Jasotako fondoak aplikatu direla justifikatzeko dokumentuen aurkeztea, oro har, modu honetan egingo da:</p>	<p>3. La justificación documental de la aplicación de los fondos recibidos se realizará, con carácter general, del siguiente modo:</p>
<p>a) Dirulaguntzaren xedea obra edo instalazio bat egitea bada, justifikazio dokumentuak gaitasuna duen teknikari baten ziurtagiriak izango dira. Udalak egindako obra edo instalazioen berri emango duen udal teknikari bat izendatu ahal izango du.</p>	<p>a) Si el destino de la subvención es la realización de una obra o instalación, los documentos justificativos serán certificaciones de un o una Técnico competente. El Ayuntamiento podrá designar que un técnico municipal informe sobre las obras o instalaciones realizadas.</p>
<p>b) Xedea material suntsigarria erostea bada, zerbitzuak ematea edo antzeko beste batzuk badira, justifikazio dokumentuak originalak edo fotokopia konpultsatuak ekartzea eskatuko da.</p>	<p>b) Si el destino es la adquisición de material fungible, la prestación de servicios y otros de naturaleza semejante, se requerirá la aportación de documentos justificativos originales o fotocopias compulsadas.</p>



<p>c) Pertsona fisikoei egiten zaizkien ordainketak, lan harremanik ez dagoen kasuetan, hurrengo moduetako batean egin beharko dira:</p>	<p>c) Los pagos realizados a personas físicas con las que no medie relación laboral deberán revestir alguna de las siguientes modalidades:</p>
<p>c.1) Dietak edo gastuen konpentsazio ekonomikoak (garraioa, otarrekoak, alojamendua, besteak): "jaso dut" agirien bidez egingo dira. Gastuen egiaztagiria erantsiko dira.</p>	<p>c.1) Abono de dietas o compensación económica por gastos (transporte, comida, alojamiento u otros): se realizará mediante "recibí". Se adjuntará los documentos justificativos de los gastos.</p>
<p>c.2) Emandako zerbitzuengatik bestelako ordainketak: faktura edo balioa duten bestelako dokumentuekin egin beharko dira. Zerga atxikipena egingo da eta Foru Ogasunean sartu (190 agiria), pertsona fisiko bati egindako ordainketen batuketa 300 (hirurehun) euro edo handiagoa denean. Egiaztatu beharko da dirua sartu dela.</p>	<p>c.2) Otros abonos por la prestación de servicios: se realizarán contra factura o documento válido. Se realizará la correspondiente retención tributaria e ingreso en la Hacienda Foral (documento 190) siempre que la suma del importe de los abonos a una persona física sea igual o superior a 300 (trescientos) euros. Deberá acreditarse dicho ingreso.</p>
<p>d) Atxikipen eta diru-sartze hori egiaztatu beharko da, ere, emandako sariekiko, bere kopurua 300 (hirurehun) euro edo gehiagokoa denean.</p>	<p>d) Dicha retención e ingreso deberá acreditarse también respecto a los premios cuyo importe sea igual o superior a 300 (trescientos) euros.</p>
<p>e) Ordainketak banku transferentzia bidez egingo dira. Ezingo dira 2.500 (bi mila eta bostehun) euro edo gehiagoko ordainketak esku diruz egin (edo kopuru txikiagokoak, lege horrela xedatzen bada).</p>	<p>e) Todos los pagos deberán realizarse vía transferencia bancaria, sin que puedan realizarse pagos de importe igual o superior a 2.500 (dos mil quinientos) euros -o importe menor que se establezca legalmente- en metálico.</p>
<p><b>HAMAZORTZIGARRENA.- Justifikazioa konprobatzea</b></p>	<p><b>DECIMOCTAVA- Comprobación de la justificación</b></p>
<p>1.- Udalak konprobatu ahalko du, egokitzat jotzen dituen baliabideen bidez, emandako diru kopuruak eman ziren xederako inbertitu zirela. Hala izan ezean, jasotako diru-kopuruak eta dagozkion berandutze-interesak itzuli egingo dira. Era berean, izan litezkeen erantzukizunak exijitu ahalko zaizkie.</p>	<p>1.- El Ayuntamiento podrá comprobar, por los medios que considere oportunos, que las cantidades otorgadas se han invertido en la finalidad para la que se concedieron. En caso de incumplimiento procederá al reintegro de las cantidades percibidas y los intereses de demora que correspondan, así como a la exigencia de</p>



	posibles responsabilidades.
2.- Departamentu bakoitzeko teknikariak konprobatuko du diru-laguntza egoki justifikatu dela, hala nola jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo gozatzeko erabaki duen helburua bete dela. Horretarako dagokion txostena emango du, eta teknikari hori bera izango da berrikusketa bete ez izanaren arduraduna.	2.- El o la Técnico del departamento correspondiente comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención, a cuyo efecto emitirá el correspondiente informe, siendo ésta/e Técnico quien se responsabilice del incumplimiento de esta revisión.
3.- Departamentu bakoitzeko zinegotzi arduradunak txostenari oniritzia eman beharko dio.	3.- La o el Concejal responsable del departamento correspondiente, deberá dar el visto bueno al citado informe.
4.- Txostena Kontularitza, Zerga Administrazio eta Ikuskaritza departamentura bidaliko da, Kontu-hartzaileak adostasuna eman dezan.	4.- El informe se remitirá al departamento de Contabilidad, Administración e Inspección de Tributos, para que el o la Interventor dé su conformidad.
5.- Dirulaguntza eman duen organoa beharturik egongo da urtero jarduketa plan bat egitera, era horretan konproba dadin onuradunek gauzatu dituztela diruz lagundutako jarduerak.	5.- El órgano concedente de la subvención tendrá la obligación de elaborar anualmente un plan anual de actuación para comprobar la realización por las personas beneficiarias de las actividades subvencionadas.
<b>HEMERETZIGARRENA.- Araubide Juridikoa</b>	<b>DECIMONOVENA.- Régimen Jurídico</b>
Dena den, dirulaguntza deialdi honen oinarrietan aurreikusirik gabeko guztian, ondorengo hauek ezarriko da: Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, abenduaren 17koa, eta 887/2006 Errege Dekretua, eta hura garatzeko arautegia.	En todo lo no previsto en las presentes bases generales de subvenciones, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria, en la Ley 38/2003, de 17 de diciembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006 y demás normativa de desarrollo.